

EB-REN GOI BILERA KOPENHAGEN. Europako Batzordeak adierazi du 1999an erabaki zen dirutza baino 2.100 milioi gutxiago aurreikusi dituela Danimarkak. Turkia presio egiten ari da kide izateko negoziazioak hasteko data finka dezan Bruselak.

Hamabostek hedapenari behin betiko oniritzia emateko bilera hasiko dute gaur

Bruselak finantzazio negoziazioak itxiztat jo ditu; Polonia eta Maltak diru laguntza gehiago eskatu dituzte



SEGURTASUN NEURRIAK. Danimarkako Gobernuak 6.000 polizia jarri ditu lanean goi bilera dela-eta, segurtasuna berma dezaten. Irudian, bilera egingo den Bella Center eraikinaren aurrean ageri da Polizia.

A.M. | DONOSTIA

Europako Batasuneko buruek erdialde eta ekialdeko hamar herrialdeetara hedapen «historikoa» egiteko negoziazioak behin betiko ixteko goi bilera egingo dute gaur eta bihar Kopenhagen. Urte luzetako prozesuaren ondoren, oraindik finantzaketa alorrean hainbat soka lotzeke daude. Zipre osorik edo soilik zati greziarra sartuko den EBn zintzilik dago, eta Turkia presio egiten ari da, Washingtonen laguntzaz, Hamabostek data ezar dezaten bategite negoziazioak abiatzeko. Egoera ikusita, EBko txandakako lehendakari izan den Anders Fogh Rasmussen Danimarkako Lehen ministroak adierazi du larunbatera luzatuko dela bilera, aurretik akordiorik lortzen ez bada.

«Eskuzabalak baino gehiago izan gara, eta ezin dugu urrunago joan», nabarmendu zuen asteartean Danimarkak, EBko Atzerri ministroek Kopenhagen finantzaketa plana onartu zutela iragartzean. Orain arte EBn sartzeko hautagai diren herrialdeetatik soilik Estonia, Eslovakia eta Ziprek onartu dute, eta Poloniak zein Maltak diru laguntza gehiago eskatu dituzte.

Akordioak aurreikusten du 41.600 milioi euro baliatzea hedapenerako, 2004-2006 artean; urrian Bruselan adostutako dirutza baino 1.600 milioi gehiago. Europako Batzordeko Hedapenerako komisario Gunter Verheugenek hautagaien alde egin zuen eta gogorarazi 1999an Berlinen erabakitako kopurua baino 2.100 milioi gutxiago zirela. Hala, diru guztia baliatzeko eskatu zuen.

Poloniak bere nekazarientzako mila milioi euroko laguntza gehigarria eskatu du, eta Maltak BEZ zergatik salbuetsita egotea, elikagai eta sendagai alorrean, 2010. urtea arte.

Rasmussenek asteartean iradoki zuen bi herrialde horiek hedapenetik baztertuta gera daitezkeela 2007a arte, beren jarrerari eusten badiote. Alabaina, ez dira hautagaiak bakarrik

ANALISIA

■ Ainaro Mendiola

Hesia zabalik

Bigarren Mundu Gerraren ondoren eta Berlingo harresia erori bitartean Altxaruzko Hesian izandako zortzi herrialde, gehi Malta eta Zipre, Europako Batasuneko kide izango dira 2004ko maiatzetik aurrera. Gauzak ondo, Bulgaria eta Errumania hiru urte geroago, eta agian Turkia aurrerago. Hala, herrialde politikoki eta bereziki ekonomikoki egonkorren sarea zabaldu nahi du Europako Batasunak, merkatu batu sendo eta lehiakorra indartzeko.

Hamabostek aspaldi egin zuten bat globalizazio eta merkatu ekonomiarekin. Hedapenak areago berdinduko ditu egungo kideak eta hautagaiak ideologiko, kultu-

ral, politiko eta ekonomikoki. Hala ere, ezberdintasun franko izango dira geroan ere, Batasunean zein kanpoan. Kide aberats eta txiroen artean, erabakitze gaitasuna dutenen eta hainbesteko ahalmunik ez dutenen artean, zentroa eta periferiaren artean, eurogunekoen eta eurogunetik kanpokoen artean —Blairrek esan du eurogunetik kanpo ez dagoela etorkizunik Londresentzat—. Bi abiadurako Europa izango da, teoriarik ez bada, praktikan behintzat bai.

Bi lagun konpainia badira eta hiru jendetza, hogeita zazpi direnean zer esan. 2004ko Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak aurretik egin beharreko erre-

forma instituzionalak erabakitze, polemika hilabete asko geratzen dira. Horren adibide garbietako bat da hedapenaren finantzazioak eragin dituen zailtasunak; prozesua bera «historikotzat» jotzen den arren, negoziazioak ozta-ozta amaitzea eragin duena. Erreforma horien erantzukizuna duen Konbentzioa Hamabostek zuzentzen dute, eta horrek ere erakusten du alde aurretik ezarritako eskema baten barruan lan egin beharko dutela berriek.

Konbentzioaren beste erronketako bat EBren lana herritarrentzat ulergarriagoa egitea da. Nekez lortuko du 6.000 orrialdeko txostenekin —bat-egite hitzarmenak izango duen lodiera—.

Bat-egite hitzarmena herrialde hautagai guztiek onartu beharko dute erreferendum bidez. Gerta daiteke ezusteren bat izatea, Irlandan bezala.